

211T14 **U**
Susana Mujika

ERREPORTW1,1
Luis Mazzantini
elgoibarko
oreatzailea

GEHIGARRIA
KiliBARREN

.BERIETAN
Andrea Etxaniz
Gurutze Gorriko
okorrista

KULTURA
San Juanekin
hasiko dira
auzoetako jaiak

BARREN

E L G O I B O Z S T E K A R I A

2000ko ekainaren 23a • VIII. urtea - 326. zkia



Luis Mazzantini

Zezen plazetak (04 alltv 0 ZO (11a

"Zezenaren adarrak, urrutian edarrak" (Esaera zaharra)

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

ARozTEGIAK

B1ENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
v 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
v 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
v 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
v 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
171 943 74 03 96

LAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
T 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
v 943 74 17 61
v 689 04 92 06

JAVI

Erretxindi, 1
rk' 608 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61
943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
z• 943 75 50 62
v 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
ff 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
z" 943 74 07 89
v 608 14 30 40

PVD_IBMX11 11E

JESUS Ma GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
v 943 74 45 99

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
n" 943 74 04 40
✓ 607 74 04 40

MEBE[17ZU

ARAMAR

Morkaiko, 1
v 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
✓ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
✓ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
23 943 74 13 76

iiI2r2E2.17EM

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
v 943 74 34 18

ASKETA

OSIO, 7 DEBA
Z' 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
IT 943 74 29 87
23. 689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
v 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97



SUSANA MUJIKAK

58 pertsona. Fertsona?

"58 pertsona hil dira beroak jota Donostia-ko Alderdi Ederren". "Britania Handira sartu nahi zuten 58 etorkin hil dira beroak jota, Dover hirian".

Inoiz saiatu al zarete, egunkarietan agertzen diren jolasetan bi argazkiren artean dauden ezberdintasunak aurkitzen? Ba hori da proposatu nahi dizuedana. Ea, hasteko, bi ezberdintasun behintzat ikusten dira. Bat: ez da gauva bera, Donostia edo Dover... Donostia gertu dago, Britania Handia urruti. Bi: Doverren hil direnak etorkinak ziren.

"Ez pertsonak" pentsatuko duenik ere bada, eta ez dago unutira begiratu beharrik. Ispiluari begiratu baldin badiozu, bejondeizula! eta ez larritu, hipokresia alde batera uztea oso sanoa delako, batez ere horrelako kasuetan. Urruti gertatzen diren albisteen xarma da hori. Gizarajoak! A zer nolako heriotza! Ez dago eskubiderik!! Esaldi horiek denak, etxetik urruti gertatzen direnean esaten ditugu. Baina herrian bat edo bi ez baino 20 etorkin izango balira? Orduan akabo, gizarajoak!

Oso solidarioak, eskuzabalak gara denok, arrazismoaren aurkakoak, gertu tokatzen zaigun arte eta horrek, beldur handia ematen du. Behin, telebistan lan egiten duen etorkin batek zera esan zuen: hara, telebistan agertzen direnak, ezagunak dira, taberna batean sartu eta jendeak, begiratu egiten die, eta autografoa eskatzera hurbiltzen zaizkie. Ni taberna batera sartzen naizenean, eta telebistan lan egiten duen arren, poltsak ezkututzen dituzte. Zer pen-

tsatuko zenuke zuk, taberna batean sartu eta poltsak ezkutatu balituzte? Ba hori pentsatzen du berak ere. Egiten duena eginda ere, beti egongo dela inguruan, kartera atzeko poltsikotik aurrera pasako duen norbait. Eta ez pentsa hori aldatzea erraza izango denik. Beste jolas bat proposatuko dizuet orain. Hainbesteko arrakasta duten "kruzigrama" horietako bat. 1.- nork bermatzen dio (gehienetan) pertsonari pertsona izateko eskubidea? (alderantziz irakurri erantzun zuzena: KAEGEL). 2.- Eta horrek pertsona izateko eskubidea ukatzen duenean, zer gertatzen da? (alderantziz irakurri erantzun zuzena: ASOAK).


Alegia, Igea, pertsonari pertsona izateko eskubidea bermatzeko dela, eta hori egiten ez duen unean, ez dela ez lege ez ezer... kaosa baizik. Extranjeriaren

"Extranjeriaren legea aldatzeko asmoa du orain Espainiako gobernuak eta aldaketa horrek, pertsona izateko eskubidea ukatuko dio etorkinari."

legea aldatzeko asmoa du orain Espainiako gobernuak eta aldaketa horrek, pertsona izateko eskubidea ukatuko dio etorkinari. Alegia, lehen zituen eskubide apurrak kenduko zaizkiola. Poliziak, etorkinak kanporatu ahal izango ditu "di-da" batean inoren baimenik gabe, paperak lortzea orain baino askoz ere zailagoa izango da, ezinezkoa ez esateagatik. Osasun zerbitzuetara edo eta hezkuntzara sarrera ere malda luzea da, eta "etxebizitza" aldatzen duten bakoitzean edo "lana" aldatzen duten aldiro poliziarengana joan beharko dira, aldaketaren berri ematera. Eta gero, "Gran Hermano" Initikatzen ari gara, gu geu, denok Gran Hermano garelako konturatu gabe.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta Uandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
zr 943 74 41 12
Publizitatea:
72 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

| | |
|----------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Eli Aizpuru |
| KAZETARIAK | Irati Agirreazaldegia Asier Orbea |
| PUBLIZITATEA | Andoitz Aginegomezkorta |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADISONISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Akarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Ainhoa Andonol Aitor Argarate, tdoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Lolola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otario, Jon Pell Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre. |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| EusKARA ZUZENTZAILEA | Ibon Arriola |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop, E. |
| TERADA | 4,000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta
Foru Aldundiak
diruz
lagundutako
aldizkaria.*



||~gizarte-ekintza
obra social

DA N O BAT

44 GOITI
GRUPO DANOBAT

Zabal ezak hire konizienzia

z dakit konturatu zareten, azken labete hauetan emakumeen egoerati buruz informazio pila bat agertu dela egunkarrietan eta konkretuki, emakumeen egoera ekonomikoari buruz. Hau da, Elgoibarko datuen arabera, 22 urtetik beherako langabeziaren kopuruaren %75ekoa emakumezkoena 22-35 urte bitartean, %50a eta zer esanik ez, 35 urtetik gora, %80a da.

Beste alde batetik, zenbat emakume langile (etxeakoandreak) daude 'INEM' eko zerrendetan apuntatu gabe? Hauek bakarrik EKE (CAV)ko PIBeko %40a mantentzen dutelarik. Hori zer? Ez al da lana? Ez al dira etxeako ekonomiaren sostengua?

Pentsa ezazue emakume hauen lana kanpotik dakargun soldatarekin ordaindu beharko bagenu; soldataren %45a horretan joango litzaziguke, seguraski.

Baina koska askoz ere sakonagoa da emakume hauek ez baitute izan behar adinako aukerarik etxetik kanpo lan egiteko, eta hauen talde barnean ez gaude-nok ere, ikusi beharko genuke zein aukera izan ditugun. Zer dela eta?

Demagun emakumea zarela (eta ez bazara ere, egin ahalegintxo bat mesedez, laster amaituko dut-eta), erdi mailako prestakuntza duzula eta Elgoibarran lan eske zabiltzala. Makina-erreminta da batez ere hemengo industri nagusia eta noski, hortik jotzen dituzu aurreneko aldabak. Zein da jasotzen duzun erantzuna?

- "Indarrak ez duzu". Nik dakidala fresadora edo torno baten lan egiteko ez da beharrezkoa indar gehiegirik edukitzea. Emakumeen beharrentzako ez daude prestatuak, aldagarik ez dago, komunik ere ez eta ezta oinarriko baldintzarik ere, haurtzaindegiak, esaterako. Agian, egunen batean, ama izango zara. Ama izateko aukerak badituzu, beraz, aurreko egoeran aurkituko ginatke. Eta abar luze bat.

Hauekin lotuta, entzungo zenuten ere, argi dago, Europako poblazioa behera doala, Euskal Herria lehenengo postuetan dagoelarik. Harritzen al zarete? Gure ekonomia baldintzak manten-

tzeko kanpoko jendea (etorkinak) beharrezkoa izango dela esaten da. Eta nik diot: Eta zer pasatzen da hemengo langabeziarekin. "eme-langabeziarekin" batik bat?

Beno, irudipena amaitu da eta orain, demagun zarena zwela, emakume edo gizona. Eta, gizona bazara, ez al duzu aita izateko eskubiderik? Ba, orduan, izan zaitez benetako "aita": Har ezazu dagokizun aitatasun baja, eraman ezazu zu zeuk umea medikuarengana, eska itzazu behar adinako infrastrukturek, hau cla, haurtzaindegiak, eta abar.

Beraz, izan zaitez behar bezalako "aita" eta jo ezazu aurrera zure seme-alabekin. Lagundu zure kontzientziarekin emakumeok lan munduan sartzen lagunduz eta jolas itzazu ondo eskuartean dituzun kartak. Egin ezazu hori guztiongatik eta batez ere, Euskal Herri berdintsuago batengatik.

Zabal ezak hire kontzientzia!

S.Z.

N.A.N 14.239.867

**Elgoibarko Gutun Sozialaren
Aldeko Plataformaren izenean**

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko, Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



BAI, ESAIC

Ane Gurruxaga Bidaia Agentziako langilea

Udan sartu berriak gara eta jendea oporrak prestatzen hasi da dagoeneko. Gem eta jende gehiago joaten da nazioarteko leku ummetara. Hort dela-eta Osasun Sailak 'Osasunak ere bidaiatzen du' kanpaina jarri du manican, nazioartera egin beharreko bidaietarako osasun gomendioak enuneko asmoarekin. Guk bidaia agentziara jo dugu Ane Gunitragak hartu beharreko neurrien berri eman diezaigun.

- Nazioarteko zein leku dira bisitatuena? - Gure eskarien arahera nazioartean Costa Ricara, Karibera, Indonesiara, Afrika iparraldera eta Europara (batez ere Italiara, Jubileoa dela-eta) egiten dira bidaia gehien. Dena den hadira beste hainbat leku ere bidaetarako aproposak eta jendea hauetara ere joaten da.

- Bezeroei ematen al diezue osasun arriskuen berri? - Bai, bisitatu behar duten herdaldean arazoak daudela baldin badakigu Osasun zentroetara joateko gomeradioa luzatzen diegu bezeroei. Bertan beharrezko txertoak jartzten dizkiete. Gehienetan bidaiariek ere jakiten

dute arriskuen berri, beraz, guk arreta jartzeko esan arren ez dira atzera botatzen eta neurriak hartu ostean bidaiatzen dute.

- Zein dira bidaietan harrapa daitezkeen gaixotasunak ohikoena? - Sukar horia delakoa izan ohi da ohikoena eta malaria kasuak ere ikusten dira. Dena den, bidaiariak prestatuta joaten dira eta txertoak hartuz edo pilula bidez egiten zaie laguntza gaitzei.

- Bidaiariek zein aholku jaso behar dituzte arrisku hauei aurre egiteko? Zein dira hartu beharreko neurriak?

-Txertoak eta botikak aurrez hartzeaz gain, bidaian bertan kontuz ibili behar da. Ura, esaterako, ezin da edozein lekutan edan. Dena den, gomendiorik eta informaziorik zehatzena Osasun Sailean eman ohi dute eta egokiena nazioartera egin beharreko bidaia prestatzen ari direnean bidaiariak bertara joatea da.

- Espainia barruan bidaiatuz gero ba al dago gaixotasunak harrapatzeko aparteko arriskurik? - Ohiko gaixotasunaz gain ez dugu uste gaitz bereziren bat har daitekeenik. Haia ere, komenigarria da bidaiara goazenean botikina aldean eramatea.

t r

ARIGERA JAIXA

Ekainak

30

ostirala

21:00
AFARIA
ondoren
ERROMERIA

19:00
TXIKITEOA

Raftrota anaiak
trikitilariekin
TOLETXEN hasi
eta herriko
tabernetan

AFARI RAKO
TXARTELA:
1.000 pta.

TXARTELA EROSTEKO:
Udal Euskaltegia (943 74 27 31)
AEK Euskaltegia (943 74 13 32)
Eignibarko izarra (943 74 16 26)

Azken eguna ekainaren 28a.

programan
arigera

Helduen earkeldurnTxex-eltabetatzea amparseka pralaldea

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • AEK Euskaltegia • Udal Euskaltegia • Elgoibarko Uclala



Luis Mazzantini

LUIS ZANTINI: zezen Aimetako jau

Luis Mazzantini Egia XIX. mende bukaerako pertsonaiarik ezagunetarikoa izan zen. Gezurra badirudi ere gizon hau Elgoibarren jaio zen 1865. urteko urriaren 10ean, Errosario kaleko 7. zenbakiko lehenengo solairuan, hain zuzen. Zezenen munduan gainontzeko toreatzaileen errespetua eta ospe itzela eskuratu zituen, baina toreatzailea izateaz gain, politikaria eta musikaria ere izan zen, garaiko intelektualik ezagunen laguna, eta Sarah Bernhard aktorea ere berataz maitemindu zen, besteak beste. Bere bizitza Hollywood-eko pelikula bat egiteko modukoa izan zen. Ondorengo lerroetan Mazzantini buruzko zenbait pasadizo bildu ditugu, bizitza guztia kontatzeko aldizkari osoa beharko genuke-eta.

ZENBAIT DATU BIOGRAFIKO

Luisen aita, Giuseppe Mazzantini, Toscanakoa (Italia) zen. Injinerua izanik, beste italiar askoren moduan iritsi zen Elgoibarrera, hau da, Donostia-Bilbo trenbidearen eraikuntzan lan egitera. Langile italiarrek sartu zuten soinu txikia edo trikitixa Euskal Herrian XIX. mende erdi aldera, instrumentu hau italiar jatorrikoa baita. Giuseppe, Bonifacia Egia elgoibartarrekin ezkondu zen, eta 5 seme-alaba izan zituzten. Luis zaharrena zen eta bera izan zen Elgoibarren jaio zen bakarra.

GAZTARO MUGITUA

Bizitzako lehen 6 urteak pasa zituen Mazzantini Elgoibarren. Trenbideko lanek aurrera egin ahal, familia osoa Laudiora joan zen bizitzera eta handik Bilbora. 11 urte zituenean aitaren lanak behartuta Italiara itzuli ziren. Erromako eskolapioetan egin zituen Luisek ikasketak. 1870. urtean saboiako Amadeo I.a Madrilera ailegatu zen, bere segizio taldean 14 urteko paje bat zegoen, Luis Mazzantini gaztea, alegia, 15 urterekin lortu zuen lehen enplegua, Madrilako Palazzo Errealeko ukuluzaina izan zen. Urtean 912 pezeta irabazten zituen. 1973. urte-

an Amadeo I. erregeak abdikatu egin zuen eta I. errepublika ezarri zen. Ordurako Mazzantinitarrak Donostiara joanak ziren. Handinahia zen Mazzantini nirena ezaugarri nagusienetakoa, sekula ez zegoen zeukanarekin konforme. Gazterik hasi zen lanean, baina soldata baxuak irabazten zituela-eta, etorkizuna zihurtatzeko ikastea egokia izan zitekeela pentsatu zuen. 1874. urtean Arteetako Batxilergo gradua lortu zuen.

Handinahia zen Mazzantini nirena ezaugarri nagusienetakoa, sekula ez zegoen zeukanarekin konforme.

DIRUA IRABAZTEKO: TENORE EDO TOREATZAILE

Mazzantini nirena pentsatzeko eraren erakusgarria dugu famatua egin zen honako esaldi hau: "En este pais de los prosaicos garbanzos, s610 se puede ser cantante o torero, y yo no he sabido dar el do de pecho". Pentsatu eta egin, aberastasuna lortzeko modu bakarra toreatzaile izatea zenez, zezenketen munduan murgildu zen. Etxean eta inguruan zezenketenganako inolako tradizioz izan gabe sartu zen mundu horretan.

ntxo zoroa

"EL SEÑORITO LOCO"

Garai hartan ez zegoen toreatzen ikasteko eskolarik, eta hasi berri guztien moduan Mazzantini ere kapeatara joaten hasi zen. Segituan egin zen ezaguna Gaztelako herri guztietan, "El señorito loco" ezinezaz ezagutzen zuten. Zezenketen mundua oso inkultoa zen garai hartan eta Mazzantini moduko gizon jantzi eta ikasia, tren geltoki burua, gainera, toreatzaile i zateko asmotan ikustean jendea harritu egi ten zen. Hasieran ez zuen arrakasta gehiegirik izan. Hau ikusirik "Frasquelori", garaiko toreatzailerik ezagunetarikoa laguntza eskatu zion. Mazzantiniaren dotoreziak harritu egin zuen eta lagundu egin zion.

1.184 ZEZENKETA 21 URTETAN

Pixkanaka arrakasta eta fama lortzen hasi zen, hategi ere zezenak hiltzeko zuen moduagatik, "bolapie"aren erregea izendatu zuten. Sevillako "La Maestranza" zezen-plazan 1884. urtean "Frasquelok" eman zion alternatiba.

Toreatzaile karrera aparta egin zuen Mazzantini. Guztira 1.184 zezenketetan hartu zuen parte 21 urtetan, hau da, 56 zezenketa urteko. Marka bikaina alajaina, batetik bestera mugitzeko garraio bakarra diligentzia baitzen. Urte guzti hauetan 3.084 zezen hil zituen eta 11 adarkada jaso zituen,

ZEZEN PLAZATIK KANPOKO OSPEA

Mazzantini oso ospetsua izan zen, baina ez zezenzaleen artean bakarrik, garaiko gizartean entzute handia lortu zuen. Gaur egun "El Juli", "El Cordobes" edo "Jesulin" toreatzaileek duten ospearekin konpara dezakegu, zezenzaleak ez direnek ere eza gutzen baitituzte toreatzaile hauek, fenomeno sozialak dira. Mazzantiniaren garaian toreroak analfabetoak eta astokilo xamarak ziren, eta bera, berriz, gizon dotorea eta edukatua zen. Txistera janzen zuen eta intelektualeen artean ibiltzen zen. Zorrilla, Unamuno eta Natalio Rivasen laguna izan zen. 'Mazzantini' eskularruak, kapelak eta bastoiak modan jarri ziren eta bere omenez 3 pasodoble egin zituzten. Guztien errekonozimendua jaso zuen, bai toreatzaileena eta baita kritikoa ere. Guztiena Donostiako Peña y

Goñi kazetariarena izan ezik, Duelo baterako erronka bota zion, baina ez zen inoiz egin, kazetariaren lagunek edozer gertatuta ere bera izango zela galtzailea konbentzitu baitzuten. Galduz gero barregarri geratuko baitzen, "Mazzantiniaren azken estokada" izango zen egunkarietako titularrak eta Mazzantini hilez gero, berriz, idolo hiltzaile bat izango zen.

AMAIERA TRISTEA

Azken torero paseak Ameriketara eman zituen. Mexikon Sarah Bernhardt aktore frantziarra ezagutu zuen, garaiko mito erotikoa bat. Platonikoki bada ere biak maitemindu ziren. Sarahk zezen baten aurrean egoteko balorerik zeukan jakiteko gogoia zeukan eta Mazzantini zezenketa pribatu bat prestatu zion. Erretiratu ondoren Madrileko zezen-plazako enpresaria eta ganaderoa izan zen, eta baita Teatro Realekoa ere. Toretzaile moduan 5 milioitik gora irabazi zituen arren, segituan xahutu zuen dirutza hori. Gero, politikan sartu zen, partido kontserbadorean, hain zuzen. Bizitzako azken urteak oso tristeak izan ziren, eta gobernadore ohie ematen zitzaizkien soldata eskatu behar izan zuen bizirauteko.

Bizitzako azken urteak oso tristeak izan ziren, eta gobernadore ohie ematen zitzaizkien soldata eskatu behar izan zuen bizirauteko.



Luis Mazzantini

Francisco Tedouri:

Mazzantini toreatzaile iraulzalea izan zen eta zezenketak goitik behera aldatu zituen

Pasa den ekainaren 15ean, Francisco Tedouri zezenkale eta idazle tolosarrak Mazzantiniri buruzko hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean, Mazzantini Zezenkale Elkarteak antolatuta. Aukera hau aprobetxatuz Mazzantiniren toreatzeko era eta bizitzari buruzko zenbait galdera egin dizkiogu.

- Nolako toreatzailea zen Mazzantini?

Galdera honi erantzuteko XIX mendeko zezenketak nolakoak ziren argitzea komeni da lehenik, ez baitzeukaten gaur egungoen antzik. Zezenak ere desberdinak ziren; handiak eta traketsak eta oso suharrak edo mantsoak. Lehen tertzioak garrantzi handia zuen, baina pikadoreentzat zailagoa zen beraien lana, zaldiak biluzik baitzeuden. Bestalde, toreatzaileek muletarekin ia ez zuten paserik ematen, gehienez 5 edo 6, eta koadrilakoen laguntzaz. Garaiko adituen arabera Mazzantini klase gutxiko toreatzailea zen, baldar xaman'a. Hobekien egiten zuena zezena hiltzea zen, eta bere doaiari etekina ateratzen jakin zuen, oso argia baitzen.

- Mazzantini toreatzaile iraultzailea izan zela diote.

Bai, Mazzantiniren etorrerak goitik behera aldatu zituen zezenketak. Bera izan zen koadrilatik pasa gabe toreatzaile izatera iritsi zen lehenengoa. Ordura arte hasi berriek maisuarengandik (toreatzailea) gutxinaka ikasten zuten ofizioa.

- Zezenak zozketa bidez banatzea lortu zuen, ezta?

Bai, garai hartan zezenketen mundua ganadu zaleek kontrolatzen zuten. Beraiek aukeratutako zezenak eramaten zituzten plazara eta zezenen ordena ere beraiek erabakitzen zuten. Mazzantini izan zen zezenak zozketa bidez banatzeko formularen bultzatzaile nagusia. Toreatzaileen soldatak igotzea ere lortu zuen eta baita zezen-plazak mailaren arabera banatzea ere.

- Bere toreatzaile karrera berak kontrolatzen zuen, ezta?

Mazzantini bere buruaren enpresarioa izan zen. Hasieratik argi laga zuen ez zuela bitartekoen beharrik eta bera arduratzen zen bere toreatzaile karrera gidatzeaz. Bere burua salduz edo promozionatuz eskutitzak idazten zizkien herrietako alkateei.

- Akordatzen al zen bere jaioterriaz?

Mazzantini harro zegoen Elgoibarren jaio izanaz, beti akordatzen zen bere jaioterriaz. Behin, Donostian toreatu zuen eta Elgoihartik herritarrez betetako trenan irten zen Donostia alderantz, agintariak eta Musika banda buruan zirela. Udalak ezpata bat erregalatu zion toreatzaileari, "Elgoibarkoak bertako bere seme Luis Mazzantiniri" zeukan idatzita ezpatak.



MAZZANTINIREN BIZITZA DATUETAN

El 1865. urteke urriaren 10ean jaio zen Elgularren

- 21 urte egin zituen toreatzaile moduan.

E La Maestranzan (Sevilla) hartu zuen alternatiba 1884an.

- © 1.184 zezenketetan hartu zuen parte.

- m 3.084 zezen hil zituen.

- 11 adarkada jase zituen.

- 9 alternatiba eslatu zituen.

- 5 zezen plaza inauguratu zituen.

- n 5 milieitiko gora irabaztu zituen.

- Li 1901 urtean Madrileko Udaleko zinegetza izan zen,

- 1912. urtean Madrileko Prebintztako Dtputatua izan zen.

- 31919. urtean Guadalajarake

- gobernadore libila izan zen.

- n 1920. urtean Avilake Gobernadore libila izan zen.

ISPILUARI BEGIRA




'ek'uet'

UDAL EUSKALTEDIKO Idazkaria

- Zein hizkuntza jakin nahi zenuke?
Italiara. Ingelesa eta frantsesa beharrezkoak dira, eta italiara beti gustatu izan zait.
- Zein hizkuntzatan dira politenak maitasun hitzak?
- Edozein hizkuntzatan.
- Euskarazko gustuko hitz bat? - Kuttuna.
- Eta hiztegitik kenduko zenukeena? Hitz zatar guztiak.
Euskarazko abesti bat?
Benito Lertxundiren abesti guztiak ditut gogoko.
- Zure burua definitzen duen adjetibo bat?
- Burugogorra.
- Hitz egin ala entzun? - Entzun,
- Gehien praktikatzen duzun aditza?
- Sofan etzanda egotea.
- Euskaraz ikastea esaten den bezain zaila al da?
- Nik txikitatik ikasi dut eta niretzat ez da hain zaila.
- Euskaraz ongi ikasteko trukoa?
- Saiatzea eta hitz egitea.
- Euskaraz irakurtzeko liburu bat? - "Kulxidazu bidea Ixabel", euskara ikasle bati buruzko liburua da.
- Norekin pasako zenuke asteburu bat barnetegi batean? - Harrison Ford aktorearekin.
- Noiz idatzi zenuen azken gutuna euskaraz?
Gaur goizean, Taneko eskutitza izan da.
- Eta jaso? - Baita ere, gaur bertan.
- Nora iritsi nahiko zenuke urratsez urrats?
- Al Kairoraino, bertako piramideak ezagutzeko gogoia daukat.
- 'Arigera' proiektua martxan da. Eta zu ari al zara?
- Bai, ahaldenik eta ekitaldi gehienetan hartzen dut parte.
- Telefonoz euskaraz egiten al duzu beti lehen hitza?
Bai, beti 'Nor da?' galdetuz erantzuten dut. Lanean gainera derrigorrez erantzun behar dut euskaraz.
- Zeinekin egongo zinateke ordu luzez euskaraz berbetan?
- Harrison Fordekin, baina ez dakienez, lagun on batekin.
- Inoiz esan al dizute "hablame en cristiano"?
- Bai, etxean bertan, nire senarrak ez dakielako euskaraz, eta baita beste leku batzutan ere.

V. LIRTEURRENA

1995ko ekainaren 25ean, 81 eta 53 urte zituztela hil ziren

 MARIA AROCENAUNZUETA eta ROSA RIAÑO AROCENAREN oroimenez

V. URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan.

Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.




405

HILETA MEZA

2000ko maiatzaren 13an, 63 urte zituela hil zen Valentzian

JESUS ETXABE TXURRIKAREN oroimenez
HILETA MEZA izango da Parrokian larunbatean,
hilak 24, arratsaldeko 19:00etan.

Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Trinitate jaiak harrera ona izan dute Udalaren ustez

Beroak hondartzara joateko gogoaz piztu bazuen ere, adin guztietako jendeak hartu zuen parte ekitaidietan

Joan den asteburuan Trinitate jaiak ospatu ziren Elgoibarren eta herritarrok hantat ekitzarekin gozatzeko aukera izan genuen. Jaiak amaitu ostean, Udaleko Kultura Sailera jo dugu eta herrian harrera ona izan dutela adierazi digute. "Nahiz eta izugarrizko beroa egin jendea ibili da jaietan. Adin guztietako jendearentzako ekitaldiak antolatuta dira eta jendeak hauetan parte hartu duenez, oso pozik gaude".

'Ikaro' antzezlanarekin hasi ziren Trinitate jaiak eta esan digutenez, "oso obra polita izan arren, 100 lagun baino ez ziren Herriko Antzokira joan". Bestalde, haurrek leku handia izan dute jaietan. Beraientzako parkean jolas egiteaz gain, Musikeskolako dantza jaialdian eta tanborradan ere hartu zuten parte. "101 Dalmata izan zen tanborradako karrozaren gaia, umeentzako oso



Tanborrada eta arku tiraketa izan ziren besteak beste, Trinitate jaietako ekitz,ak.

aproposa". Esan digu Blanca Salegi Kultura Saileko teknikariak.

Gaueko kontzertuek ere harrera ona izan omen dute. "3 urte dira Bandaren musikarekin dantzaldiak antolatzen hasi girela eta jende nagusiaren artean izugarrizko arrakasta dauka, beste edozein taldek baino handiagoa. Plazan bildutakoek dantzaz gogoz egin zuten. Barricadaren kontzertuan ere jende asko elkartu zen Madalako Parkean. Doinu gogorrakoak gustuko dituztenek 'Drogas'en taldearen kantuak entzunez ongi pasa zuten larunhat gaua.

Nobedadeen artean arku tiraketa aipatu genuen eta esan digutenez erakustaldi polita eskaini zuten Zarta taldekoek. 'Robin Apple' delako modalitatean Elgoibarren duela gutxi ezagun egin den kirolaren nondik norakoak azaldu zituzten Plazan herritarren aurrean.

Bernabe Mujika elgoibartarrari agurra



Joan den asteartean, hilaren 20an, jaso genuen Bernabe Mujika elgoibartar ezaguna hil zenaren berria. Pen'etxikoetan aditua eta Karakate Mikologia Elkarteko fundatzaileetako izan zen. Iazko irailean Elkarteko ohorezko bazkidea izanik omenaldia egin zioten Aranzadiko Mikologia saileko kide honi.

Gaixorik egon ostean agur esan digu herriko gizon ezagun honek eta guk ere herritarren partez agurra luzatu nahi diogu Bernabe Mujikari.

Manolo Landa eta Iñaki Gandiaga mendarotarrek jubilatuen Euskadiko Mus Txapelketa irabazi dute

Mendaroko 'Lagun Betikoak' jubilatutako etxeko Manolo Landak eta Iñaki Gandiagak irabazi dute pensionisten eta jubilatuen arteko Euskadiko X. kultur eta kirol olinpiadako mus txapelketa. Zortzi erregetara jokatu zuten musean eta finalean



Arabako bikotearen aurkako musaldian garaile atera ziren. Iaz ere garaile izan ziren eta aurten etxea kopaz betetzeko, bakoitzak garai-kur bana jaso zuen Gipuzkoako jubilatuen lehendakariaren, Alberto Garcíaren eskutik.



Herri Eskolako ikasleak BARRENen izan ziren erredakzioa hisitatzen

Argazkiko hauek Herri Eskolako ikasleak dira. Joan den ostiralean BARRENera etorri ziren bisitan, eta guk aldizkaria noia egiten den azaldu genien. Beraiek azalpen gutxi jaso zituztelakoan galderak ere egin zizkiguten. Bestalde, jakin dugu ostiralero aldizkaria irakurtzeaz gain, BARREN eskolako lan tresna moduan ere erabiltzen dutela. Irakasleak aldizkarian agertutako gaiet buruzko galderak egiten dizkie noizean behin eta horrekin lehiaketa egiten dute. Aldizkariko argazki zaharrak hartu eta ikasleek beraien aurpegiak jarritz ere ongi pasatzen omen dute.



Ikastolako ikasleak Sastarrainen eta Iruñean izan ziren

Ikastolako DBHko 1. mailako ikasleak Zestoako Sastarrain baserri eskolan izan ziren naturarekiko jarrera positiboa sustatzeko asmoz. Bertan Ekaingo haitzulo baten azterketa egin zuten, esnekiak prestatu eta ukuiluan zerriak eta zaldiak zaindu zituzten. Bestalde, ikasle hauek DBH 2. mailakoekin batera Iruñeako Planetariuma eta Museo Diocesanoa bisitatu zituzten maiatzean.

Folklore jaialdirako sarrerak salgai uztailearen 7tik aurrera

Datorren uztailearen 22an, larunbata, gaueko 22:30ean XIV. Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da Elgoibarren. Aurten Elgoibarko Haritz Dantzari Taldearekin batera, Kuban errepublikako kosakoak arituko dira dantzan Olaizaga Kiroldegian. Bertara joateko asmoa dutenek sarrerak aurrez erosi ahal izango dituzte Kultur Etxean. Antolatzaileek gogorazi nahi dute sarrerak aurrez erosten dituztenen artean 10.000 pta_ko 5 txeke zozketatuko direla Txankakua Merkataritza Elkartearen eskutik.

'Buroaren kanpaina jarri dute martxan Chernobilgo haurrei laguntzeko

Chemobilgo hondamendian kaltetutako haurrei laguntzeko talde bat sortu da Euskal Herrian, "Chernobil" izenekoa. Taldeko partaide diren familiek Ukrainiako haurrak ekartzen dituzte beraien familietara oporrak giro onean pasatzeko. Familia hauek herritarren laguntza ezinbestekoa dute eta horretarako dumaren kanpaina jarri dute martxan. Elgoibarko hainbat komertziotan itxulapikoak jarri dituzte nahi dutenek proiektua diruz lagun dezaten. Elgoibarrera aurten Ukrainiako 10 urteko neskatila bat ekarriko dute eta hemengo familia batekin emango ditu udako hilabeteak.



Pilarrekoak Donostiara bisitan joan ziren eta Porrotx pailazoa etorri zen Ikastetxera

Pilar Ikastetxeko DBH leko ikasleak Donostian izan ziren eguna pasatzen. Lehenengo, autobus deskapotable batean bidaiari egin zuten hiriburuan barrena. Ondoren, portura joan eta bertako txalupa batean itsasoratu ziren Kontxako uretara, iaz Donostiara etorritako 'Pako' izurdea ikustera. Hondartzan bazkaldu zuten eta esan digutenez, primerako eguna izan zen beraientzat. Bestalde, Pilarreko lehen hezkuntzako ikasle gaztetxoek sorpresa berezia izan zuten. Porrotx pailazoa izan zen bisitan eta magia trukoez gain dantza ere egin zuten haurtxoen aurrean.



1.000 milioi pezeta inguru eman ditu Eusko Jaurlaritzak ufalen aurkako proiektuei aurre egitelag

San Pedroko lanen ostean, Meliton eta Sigmako zubien arteko obrak jarri nahi dituzte martxan

Joan den asteazkenean, Juhilaren 14an, sinatu zuten Udaleko arduradunek eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak San Pedro auzoan ufalen aurka egin behar diren lanak aunera eramateko akordioa. Udaletxeko Pleno Aretoan egindako ekitaldian Alvaro Amman eta Jon Buesa, Eusko Jaurlaritzako Obra Hidrauliko eta Garraio Kontseilaria eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaria hurrenez hurren, eta Guillermo Garate Alkatea izan ziren.

Agiriak sinatu ostean, datorren urrian hasiko dituzte San Pedro auzoko lanak eta gutxi gorabehera urtebeteko iraupena izango dute. Azterketa baten arabera, ufalen arrazoiak ibaiaren zabalera eskasa da, ondorioz, euri asko egiten duenean ura pilatu egiten da. Beraz, erreka zabalduz arazo honi irtenbidea



Argazkian Alvaro Amman (Eusko Jaurlaritzako Obra Hidrauliko eta Garraio Kontseilaria), Guillermo Garate (Alkatea) eta Jon Buesa (Obra Hidraulikoetako Zuzendaria) akordioa sinatu zuten egunean.

eman nahi diote.

Udaletxean Guillermo Garatek orain arte Deba ibaian egindako lanen berri eman zuen. "Azken bost urteotan Eusko Jaurlaritzak 1.000 milioi pezeta inguru

eman ditu Elgoibarko lanetarako. San Miguel eta San Lorenzo erreketako lanak egin ziren eta aurki San Pedrokoak hasiko dituzte".

Proiektu berria

Bestalde, alkateak aukera aprobetxatu zuen ufalen arriskuak herrian bertan izan dezaketen eragina zein den azaltzeko. Ondorioz, Melitongo zubitik Sigmako zubira bitartean beste proiektu bat martxan jartzeko asmoa dagoela adierazi zuen Guillermo Garatek. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ufalen aurkako azken lan hauek egiteko dirulaguntza eskatu zien.

San Pedroko lanek agintarien onarpena jaso dute, eta hurrengo pausoa herrian uholdeekin dauden arrisku guztiak konpontzea izango da.

Urruzung amora joateko pasabide bat egingo dute trenbide azpian

Tunelak egungo trenbide-pasagunea ordezkatzeko du

Melitongo zubiaren parean, Urruzuno bailarara joateko pasabide bat ipiniko dute trenbide azpian. Amnabar enpresak egingo ditu lanak eta guztira ia 50 milioi pezetako kostua izango dute. Pasabide hau eraikitzean, oraingo trenbide-pasagunea hemendik aurrera ahalik eta gutxien erabiltzea da asmoa. Bide batez, behin Albitxuriko gune industrialak egindakoan bertara joatea erosoagoa izatea espero da. Hala ere, egungo 'paso nibela' ez dute kenduko, izan ere, tunelak 6 metroko zabalera eta kami oiak



Lanak 50 milioi pezetako kostua izango dute eta tunela Melitongo zubi parean jarriko da.

pasatzeko altuera izango badu ere, egon liteke bertatik pasatzeko zailtasunak dituen ibilgailurik.

eta erosoagoa izango dugu lanak hasi eta lau hilabeteren buruan.

Pasabide berria prefabrikatutako kaxa bat izango da, eta trenbideko errailen azpian jarriko dute. Meliton eta Urruzuno bailararako bidea batuko dituen lanak bi zatitan banatuko dira: batetik, tunela eraikiko dute eta hau Eusko Jaurlaritzak ordainduko du. Bestetik, tuneletik Urruzuno bailarara doan bidea arteko zatia egin behar harko da eta honen ardura Udalak izango du.

Beraz, Urruzunoko bizilagunek ezezik herritarrok eta bailarara hurbiltzen direnek ere pasabide berri



H

onako hau 1960ko ekainean, Trinitate jaietan ateratako argazkia da, **Txomin Ulaziak** lagatakoa. Irretratukoek saltaka jokoan hartu zuten parte eta korrika egin ondoren partaideak dotore jarri ziren kamarari begira. Benetan dotore agertzen dena, ordea, argazkian eskuman dagoen mutikoa da. Garai hartan ohitura zen gazte bat jaietan alkate izendatzea eta urte hartan

Txomin Ulaziari egokitu zitzaion aukera. Argazkian, aurreko aldean, honako hauek agertzen dira:

Goian, ezkerretik eskumara:

Txomin Ulazia, Juanita Ulazia, Javier Urbietta, Manolo Lazarobaster eta Jose Mari Zelaia.

Behean, ezkerretik eskumara: **Jose Antonio Loiola, Ignacio Garate, Juan Ignacio Landa eta Juanito Loiola.**

Mendaroko konbentua,

STORIADUN**monumentua**

1992an joan ziren mojak Mendarotik. Urte asko egin zituzten herrian eta nabarmena da haien arrastoa mendarotarrengan. Orain isilik, lagata dugu konbentua. Bertan sartu gara monumentu historiko hau kondairaz gain argazkiz zuei aurkezteko.

1561. urtea zen Domeca Andoanegui eta Grazia Andoanegui mendarotarrek eta Maria San Juan de Yartua eta Madalena de Arriaga elgoibartarrek beraien bizitza Jaungoikoaren zerbitzutan eskaintzeko hitz eman zutenean. Hitzarmena Pedro Abad de Yartua Elgoibarko San Bartolome Parrokiako elizburuaren testigantza-pean egin zuten.

Mendarotarrek, Domeca eta Grazia bizi zireneko etxeak eta heredatutako beste batzuk eskaini zituzten elizarentzat. Garai hartako idatzien arabera, lbaraneta baserria Andoaneguitarrena zen eta berari zegozkion sagastiarekin eta ganaduarekin batera konbentuarentzat izango zen; mojek landu ohi zuten baratzeko lurra ere garai hartakoak dira.

Konbentua eraikitzeko hainbat laguntza jaso zituzten, besteak beste, Eibarko Gonetxea etxearena eta Elgoibarko Alzolabekoena. Aberastasun guztiak, as-

katasun osoz, beraien erara administratu zituzten habitua jantzi berri zuten lau mojek.

Garai hartan hitzartutako lege-etako batek dio, konbentua here-

datuko lukeen mojarik ez balego edo hau ustuko balitz, Mendaroko Garagartzako eliza egingo litzatekeela haren jabe. Idatzi hauetan Garagartzako Santa Maria eliza eta Mendaroko ospitalea aipatzen dira. Ez da, beraz, orain gutxiko kontua ospitalearena.

Esanguratsua da moja sartzeko "emakumeen alde hitz egiten zuen foru lege berria" ukatu behar izana. Halako eta bestelako bitxikeriak da-

Bertako mojei 'emakumeen alde hitz egiten zuen foru lege berria' ukatu zitzaien

karkigu kastilano zaharrez idatzi zuen moja baten lumak. Mendaroko San Agustin monastegiaren sarrerako habeak hala ezarri zirela idazten du luma honek.

1565ean San Agustini zor zioten obedi-

entzia hitz emanda, lauretan zaharrena zen Andoaneguitar Domeca, prior hautatua izan zen. Maria de la Cruz deitu zioten handik aurrera eta lau ahizpak oraingo konbentuaren bihotzean aurkitzen den etxe zaharrean jarri ziren bizitzen.

1568an hasi ziren eraikitzen monastegia. Lau urte beranduago pasa ziren San Agustindar lekaimeak monastegi berrira. Herrian gaizki ikusia ei zegoen monastegia eta herritarrek eraikun-

Konbentua eraikitzeko Eibarko Gonetxea eta Elgoibarko Alkolabe etxeen laguntza jaso zuten



tza lurreratzearekin mehatxatu zituzten; kondairak dionez mojak bertan bizitzen jarri zirenean itzali ziren gorrotoak.

MISPILLIBARKO KATTALINAREN

Kapila zaharraren azpian berrikuntza lanetan ari zirela Mispillibarko Kattalinaren usteldu gabeko gorpua aurkitu zuten. Elgoibarko parrokiako jaiotza agirien artean, 1601ean bataiatu zen Kattalinaren izena dago; agiri honetan txoritxoak eta usoak marraztu zituen norbark eta letra diferentziaz aipu bat agertzen da bukaeran: "bere gorpua osoa Mendaroko San Agustinen dago, ate txikiaren gainean".



Kattalina 33 urteekin sartu zen moja Mendaron. 63 urte zituela hil zen konbentuan bertan, eta idatzi hori lurperatu zutenetik 117 urtetara egin zuten. 1780. urteaz ari gara, orduan, gaur egun ezagutzen dugun kapila jaso zuten. Jatontziko kapila, egun sotoa bezala ezagutzen den hartan aurkitzen zen eta han lurperatu ohi zituzten konbentuan hildako mojak. Urte hartan, kapila benia eginda, gorpuen hezurrak aldatzen zebiltzala aurkitu zuten Kattalina Mispillibarren gorpua usteldu gabea. Gertakariari zor omen zitzaion legez, harlosa baten azpian ipini zuten arima sakratua.

SOLDADU FRANTSESAK

'Frantsesadetan' konbentua eraso zuten soldaduek aurkitu zuten gorpua, eta kanpandorretik behera jaurti. Horrela hitz egiten dute aspaldiko ele zaharrek soldadu frantsesez. Ondoren, 1894an sarrerako atea konpontzen ari ziren langileek berriz aurkitu zuten. Hanituta utzi zituen aurkikuntzak, izan ere, frantsesek egindakoak eginda aintzinako gorpua osorik zirauen. Horrela hartu zuten lekua Mendaron peregrinazioek eta esamesek; jendea kandlekin joaten zen eta mirarien oihartzuna zabaldu zen inguruetan.

Garai hartako priarak Gasteizko obispoari kontsulta egin zion gertaerak ateratako zarata ikusita. Honek medikuak bidali zituen gorpua hain osoa ote zen egiaztatzerako. Zientzilariek hala zela adierazi zuten, nahiz eta 250 urteren ondoren emakume baten gorpua horrela egotea harrigarria izan. Azterketa egin ostean frantsesek egindakoa ere egiaztatzen zuten.

Obispoaren mandatuz, bazterrak gehiago ez aztoratzearen-edo, berriz argirik ez ikusteko moduan izkutatu zuten gorpua eta baita isildu ere Mendaroko mamuaren kondaira.

Kenaentua ev2ISO miten
soOdadiu granIsesek
l'IrispijEllharrko Kattailnaren
gjorppua eta
harpaindozveIII behevz
fivzi0 2wb2[11



Garai batean jangela izan zen gela hau. Leiho aldamenen dagoen pulpilotik egiten zituzten bazkal aurreko errezoak.



Konbentuko ganbara garai hartako arkitektuaren gordailua zen.



Mojen logelak ikus daitezke pasabidearen alde banatan. Bertako apaletan 1992an joandako mojen izenak aurkitu ditugu idatzita: Sor isabel, Sor Elena eta Sor Maria

"Gatibu sortu nintzen", Jokin Urainen liburu berria kalean da

Jokin Urain Alkortaren liburu berriaren aurkezpena egin zen joan den igandean Mendarozabalgo Trinitate ermitan. Preso dagoen "La Moraleja" espetxean idatzi du liburua, han ezagututako Antxon Garcia del Molinoren bizitzari buruz.

Antxon Garcia apirilean atera zuten espetxetik eta aurkezpenean izan zen. Espetxeko oroitzenak Antxonon ahotik entzuteak eta Jokinnek bidalitako eskutitzen irakurketak bertara bildutakoak unkitu zituen.

Ekitaldi ugari udaran Santa Ana jaiak artean

Mendaroko Udalak, 'In Leike' eta Plataforma Aktiboak hainbat ekitaldi antolatu dituzte udarako. Ekainaren 24an eta uztailaren 8an, gauez dantzarako aukerarik ez da faltako Mendaron. Lehenengo erromeria Azpilgoetan izango da "Zabale" anaien eskutik eta bigarrena, berriz, Mendarozabalen "Ludiberri" taldearekin. Uztailaren lehen berriz zinezaleen txanda izango da, frontoian "Todo sobre mi madre" pelikula emango baitute. Kirolak ere izango du lekurik uztaileko ekintzetan. Uztailaren 8an, an'atsaldez, Jubenilen lasterketaren 15. urteurrena dela eta, gaztetxoek Gipuzkoako txapelaren atzetik arituko dira bizikletan. Uztailaren 15ean, aldiz, zaharren omenaldia egingo dute.

Bestalde, 'In Leike' taldea arduratuko da uztailean mendaron jokatu den futbito txapelketaren antolaketaz. Izen-ematea Txirristaka eta Ormola tabernetan egin beharko da. Plataformak, berriz, eskultura alternatibo erakusketa prestatu du uztailearen lehenengo bi asteetarako.

Aitor Agirrebeña eta Aitzol Urain Gipuzkoako Eskolarteko Pilota txapeldun

Aitor Agirrebeña eta Aitzol Urain bikote mendarotarra txapeldun izan zen Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketan. Azpeitian jokatu zuten finala hilaren hasieran

eta bikote zarauztarra hartu zuten menpean. Orain Euskal Herriko txapelketarako klasifikatu direnez, gainontzeko herrialdeetako bikoterik onenek izango dituzte aurkari.



Mendaroko jende ezaguna presoan eskubideen errespetua aldarrikatuz

Joan den larunbatean, hilaren I 7an, hasi zen Baigorri (Baxenafarroan) presoan aldeko martxa nazionala. Euskal Herria herriz-herriz zeharkatuko duen martxa hau uztailearen 11 n iritsiko da Debabarrenera eta Mendarotik arratsaldeko 16:30ean

pasatuko da. Egun horretarako presatuntzak egiten hasi dira Mendaron. Erretratuan Mendaroko erakundeetako jendeak eta pertsona esanguratsuek martxarekiko atxikimendua aldarrikatu dute, herritanak martxan parte hartzeri animatuz.



Gurutze Gorriko Itsaso eta Salbamendu kanpaina 2000 hasi da. Aurtengo honetan berrikuntza nabariak daude gainera. Prentsa Departamentua eratu dute eta azkenaldi honetan, informazio gehiago eta zehatzagoa ematen ahalegintzen dira. Honetan dihardu Andrea Etxaniz elgoibartarrak ere. Eri-zaina izanik, duela bi urte hasi zen Deban sokorrista lanetan eta egun, Gurutze Gorriko Prentsa Departamentuan dihardu buru-belarri

ANOREA Etxaniz

"Kalean sokorristei buruz dagoen mentalidadea ez da zuzena"

— Zein esparrutan egiten du lan Gurutze Gorriak?

Gipuzkoan batez ere, eta Arabako urtegietan. Gipuzkoan ere ez ditugu hondartza guztiak hartzen, noski. Donostia, Hondarribia, Deba eta Zarautzen gaude.

— Zer nolako lana betetzen duzu Prentsa Departamentuan?

- Informazioa bateratzea da gure lana. Goizero irriati guztietatik deitzen digute, itsasoaren egoeraren berri eskatzeko eta iluntzero, egunean zehar egon diren asistentziei buruzko txostena egin ohi dugu, prentsarako batez ere. Aurten ez dakit zer gertatzen den baina komunikabide guztiak honetan interesatuta daude.

— Prestakuntza berezirik behar izaten al duzue?

- Bai, Gurutze Gorrian sartu ahal izateko kursoak egitea edo prestakuntza eskatu ohi dute. Gero, behin bertan egon eta gero, erreziklatzeko kursoak daude. Nahiz eta titulua eskuetan izan beti dago zerbait gehiago edo berria ikasteko eta horretan jarraitu behar izaten dugu.

— Jendea konturatzen al da zuek egiten duzuen lanaz?

- Kalean sokorristei buruz dagoen mentalidadea ez da zuzena. "Pringadito" bezala hartzen gaituzte eta askotan, kasurik ere ez digute egiten. Aurten 200 pertsona inguru egongo gara udan zehar. Sokorrista izatea ez da itsasertzean egotea bakarrik. Buruan sartu behar da prestatutako jendea dagoela, nahiz tituludunak, nahiz boluntarioak izan.

— Zer diozu azkenaldi honetan uraren egoerari buruz entzuten ari garenaz?

- Hondartzen egoera gero eta gehiago hobetzen ari dela uste dut. Eusko Jaurlearitzak egunero uraren bi muestreo exijitzen ditu eta kontrol handia dago. Lehen astean behin egiten zen.

— Noia jakin dezakegu uraren kalitatea nolakoa den?

Banderek ura edo korronte buruzko informazioa ematen digute, baina aparte, panelak egon ohi dira hondartzetan eta hauek uraren kalitateari buruzkoak dira. Askotan, gezurra ematen du baina jendea beti hondartza berdinerara joan eta horrelako gauzekin ez da konturatzen.

— Zer aholku emango zenioke herritar bati hondartzara doanerako?

Hiru zatitan banatuko nitzuke aholkuak: Batetik, itsasontzian atera behar izanez gero, eguraldiaren informazioa, itsasoaren egoera, eta enbarkazioaren egoera aurreikustea egongo lirakeke. Bestetik, hondartzan egon behar denari, eguzkiarekin kontuz ibiltzeko esango nioke. Likido asko edateko eta azala ondo hidratatzeko. Eta azken aholku sorta, uraren egoerari buruzkoa da. Bost minutuko bainuak hartu, 15 minutukoak asko jota eta ondoren, dutxatu. Azalean zerbait arraroa edo mukiak nabaritzen gero, medikuarengana jo.

EESTEK ESANA

"Lanari beldurrik ez dion pertsona da Andrea. Buru-belarri sartzen da lanean."
MIRARI OSORO, laguna.





Esther
Arrieta
orain dela 22
urte joan zen
Allarizera bi-
zitzera. Ou-
rense hiritik
21 kilometro
eskasera da-
go herri hau.
Esther Alla-
rizko mutil

Estken
Aryjefa

batekin ezkondu zen Elgoibarren, gaur egun bere senarra denarekin, alegia. Hiru seme-alaba izan zituzten eta seme zaharrenak 8 urte inguru izango zituenean Galizia aldera joatea erabaki zuten. "Lan kontuegatik etorri ginan Allarizera, senartan arreba batek jantzigintza tailer bat zakan-eta. Gaur egun alkandorak eitzen ditxugu". Allariz herri txikia, 2.500 biztanle inguru, baina oso polita dela azaldu digu, "azken urtietan hobekuntza asko ein ditxue eta oin oso ondo dao bertan bizitzeko. Hala ere, beti akordutzen naiz Elgoibarrez. Sarritzan juten gera bisitzan, duela 32 urte 12 orduko biakia zan, baina oin 5 orduan Elgoibarren zaoz". Gallegoz hitz egiten ez dakiela esan digu, baina ulertzea erraza dela. Gallegoak eta euskaldunak izakeraz oso ezberdinak garela aipatu digu, "askotan ez dabe pentsatzen dabena esaten, euskaldunok baino buelta gehixiao ematen diue gauzeri". BestaIde, aipagarria da Elgoibarren Allarizetik joandalw rritar asko eta hauen ondorengoak bizi direla, Estherrek esan digunez, "Elgoibartik egun batzuk pasatzera datozen bertako asko ikusteko aukeria izaten dou".

Affiiik

VIAJES "Egir" BIDAIAK
31L3RO EXPeSS

bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Alberto
Loyola
Oria

(1930-1986)



- 1930eko abuztuaren 7an jaio zen San Frantzisko kaleko 32an. 4 anai-arreba izan ziren, bera zharrena. Gaztetako ikasketak `Colegio del Pilar'en egin zituen eta marianistak izan zituen maisutzat.
- Gazte sasoiaren makina bat bider jolastu zuen futboleko eskola aurrean eta txikitatik ikusten zitzaion futbolerako zuen abilezia, gero denborak baieztatu zuen bezala. Herriko ibaian eta Debako hondartzan igeri egitea ere asko gustatzen zitzaion.
- Beranduago Deustoko Salesianoen unibertsitatera joan zen. San Luis Gonzaga Kongregaziokoa zen eta gaztetatik hasi zen `C.D. Elgoibarren titular bezala jokatzen.
- Deustotik itzuli eta bere aitak, Luzio (Txankia), zuen Industrias Loyola' armeria tailerrean hasi zen lanean. Aitari erreleboa hartu eta gerente ardura hartu zuen. Egundoko gorakada eta arrakasta lortu zuen lantegiak eta berrogeita piku langile izatera iritsi ziren, atzerrirako ere lan asko egiten zuten.
- Iruñean egin zuen soldadutza eta bitanean, futboleko jokatzen jarraitu zuen, `Lizarrako Izarran'. Gero, `Levante'n eta `Eibar'en jokatu zuen, `Elgoibar'era iritsi aurretik. Goleatzaile ona izan zen eta poz asko eman zizkion heniari.
- 1956an ezkondu zen Ma Teresa Elkoroiriberekin. Lau seme-alaba eduki zituzten: Iñigo, Migel, Alberto eta Ma Jose.
- Alberto sinpatikoa, alaia eta oso herrikoia zen. Pasatu zen leku guztietan egin zituen lagunak. Eskoleta tailerreko gerente izaten jarraitu zuen baino krisialdi ikaragarria jasan ondoren, lantegia itxi behar izan zuten.
- Oso hizlaria zen eta lagunekin egotea gustatzen zitzaion. Familiako gizona eta sinesmenekoa zen. Bere zaletasunen artean kirola, futbola batez ere, eta irakurtzea zeuden. Sasoi betean zegoela eta ezusteko batek eraginda hil zen 1986ko abenduaren 25ean, 56 urte zituela.

Juanito Gorostiza

imc

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUIL ELKARTEA

SUKALDARIA BEHAR DAJ

San Bartolome jaietan TOLETXEN lan egiteko. ¹

Sukatdean eskarmentua izatea eskatzen da.

Interesatuak deitu 943 74 16 26 telefonora.

Ekainaren 30a baino lehen.

1110
L*i*E."
T*X*Ēf TABERNA

Pedro Muguruza 8, beheha g Tel. 943 74 19 48

karkizano

Srag Frantzisko, 14 — TeL 943 74 05 49

Arrieta



ste honetako erretratu zaharra Ana Mari Iruretak ekarri digu. Honako hauek dira bertan agertzen direnak:

Zutik, ezkerretik hasita:

Ramon Arozena (t), Imanol Urain, Jose Urrutia, Iriaki Gabilondo, Jose Zabalo eta Pablo Irureta.

Eserita:

Angel Mari Aizpitarte (t), Migel Artola, Jose Artola, Ignacio Loyola eta Basilio Larreategi (Plaentxi).

III. URTEURRENA



74/10- lat9.az ¹Zty-"(')

1997ko ekainaren 23an hil zen
27 urte zintela.

*Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.*

Zure lagunak

Jabier San Martinek irabazi zuen Nahaste Borraste proba herritnIE

Nagusietan 15 lasterkarik hartu zuten parte eta gazteen mailan 14k



Iker Martinezek (eskumako argazkian) irabazi zue 114 urtetik beherakoen lasterkeia. Guztira 14 partehartzailek amaitu zuten proba.

Joan den asteazken arratsaldean, hilak 21, kimetz Elkarteak antolatzen duen Nahaste Borraste lasterketa Jabier San Martinek irabazi zuen. Maila honetan 15 lasterkarik hartu zuten parte, tartean 2 emakumek. 14 urtetik beherakoetan 14 neska mutilek amaitu zuten lasterketa. Kategoria honetan Iker Martinez izan zen irabazlea eta nesketan, berriz, Lara Urainek zeharkatu zuen hehmtga lehen postuan. Nagusien lasterketan Alberto Zelaia lehen postuan amaitu zi-

tuen bizikleta gaineko lanak eta zakuarekin bizkar gainean egin beharrekoak, baina Jabier San Martinek aurrea hartu zion saltaka egin beharreko azken zatian etalasterketa irabazi zuen. Proba hasi aurretik xirimiria hasi zen eta lurra oso labankorra eta arriskutsua zegoen. Horren erruz, gazte mailako partehartzaile batek min hartu zuen bizikletan zihola. Partehartzaile guztiek Kimetz Elkartean egin zuten afariarekin eman zioten amaiera egunari.

• Zikloturisten irteera ekainaren 25ean

Elgoibarko 'Lagun' Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 25ean, izango da XXV. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etati Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrundulariek. Oraingoan, ibilbide bakarra izango da, Zarautz-Gernika-Zarautz Klasika korrituko baita egun berean. Honako hau izango da ibilbidea: Elgoibar, Eibar, Ermua, Areitio, Berriz, Durango, Amorebieta, Autzagane, Gernika, Kortezubi, Ereño, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 108 km. dira. Nahi duen eclonork har dezake parte.

• Euskadiko Eskubatoi Selekzioak 6 jokalaribelgoihartar deitu ditu

'Sanlo Elgoibar' Eskubaloi Elkarteko 6 jokalaridelitu ditu Euskadiko Eskubaloi Selekzioak. Duela pare bat aste Gipuzkoako Eskubaloi Selekzioak 13 elgoibartar deitu zituela aipatu genizuen BARRENe orrialdeetan. Jokalari hauek Euskadiko txapelketan hartu zuten parte bakoitzak bere mailan. Dirudieenez maila bikaina erakutsi zuten, eta 6 jokalarik Euskadiko Selekzioaren deia jaso dute. Uztailaren 21 etik 25era bitartean Alacanten jokatu den Torrellanoko XII. Nazioarteko Txapelketan hartuko dute parte. Nere Aranberri, Ainhoa Gonzalez eta Itziar Gerrikabeitia alde batetik, eta Aitor Azkue, Julen Anso-la eta Gorka Garate bestetik, izango dira selekzioarekin jokatu-ko duten elgoibartarrak.

Sailkapenak

NAGUSIAK

MUTILAK

- 1-Jabier San Martin (24'09")
- 2-Alberto Zelaia (24'15")
- 3-Igor Mugerza (24'24")

NESKAK

- 1-Gotzone Aierdi (30'40")
- 2-Isabel Ruiz (31'07")

BETERANOAK A

Jose Etxeberria

BETERANOAK B

- 1-Antonio Fernandez

14 URTETIK BEHERAKOAK

MUTILAK

- 1-Iker Martinez (12'01")
- 2-Patxi Loiola (13'13")
- 3-Egoitz Rodrigez (13'15")

NESKAK

- 1-Lara Urain (13'32")
- 2-Leire Apellaniz (14'53")

'Zarta' Arkulari Taldeko ordezkariak irabazi dute Elgoibarko arku tiraketa txapelketa

Urriari Durangon jokatu den finalerako sailkapena lortu dute

- sa den domekan, rinitate Egunean, Elgoibarko Zarta Arkulari Taldeak arku tiraketa txapelketa antolatu zuen Plaza Handian. Elgoibarko proba urriari Durangon jokatu den finalera sailkatzeko erabakigarria zen. 'Robin Apple' izeneko modalitatean lehiatu ziren Barakaldotik, Eibartik eta Arrasatetik etorritako arkulariak. Modalitate honetan partehartzaileek 18 metrora dagoen dianoan jarritako zenbait gauza jo behar dituzte: sagar bat, globo handi bat, globo txiki bat eta 5 cm.ko aro txiki bat. Zenbat eta objektu gehiago geziaz jo, puntuazio altuagoa lor-



tzen da. Elgoibarko gezilarren taldea 6 arkulariz osatua zegoen: Ramon Blanco, Itzargi Monasterio, Iriaki Badiola, Eneritz Ramos, Iñigo Astigarraga eta Jon Garate. Maila bikaina erakutsi zuten elgoibartarrek eta proba irabazri zuten 51 puntu eskuratu ostean. Emaitza honi esker Durangoko finalerako sailkapena eskuratu dute. Bigarren postua Barakaldoko ordezkariak eskuratu zuten 37 punturekin. Hirugarren eibartarrak sailkatu ziren 33 punturekin eta azken postuan arrasatearrak sailkatu ziren 27 punturekin.

Lagunak Pilota Txapelketako finalak gaur, hilak 23, jokatu dira Plaza Handian



Gaur, hilak 23, arratsaldeko 18:00etatik aurrera jokatu dira Lagunak Pilota Txapelketako finalak Plaza Handian. Maiatzaren erdialdean hasi zen Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzen duen txapelketaren IX. edizioa. Guztira 60 pilotari inguru aritu dira lehian, eta honako hauek dira finalak jokatu dituzten pilotariak:

- J. Conde I. Gabilondo (Benj. B)*
- P. Larrea - G. Unanunzaga (Benj. A)*
- O. Txurruka - M. Arrizabalaga (Aleb. nes.)*
- M. Portta I. Txurruka (Aleb. mut.)*
- E. Loiola E. Ulazia (Kad.)*

Olaizaga Kirol Elkarteko kideek karate erakustaldia eskainiko dute bihar, hilak 24

Olaizaga Kirol Elkartek karate erakustaldia eskainiko du zapatuan, hilak 24, Kiroldegian. Adin eta maila guztietako karatekek urtean zehar Luis Agirregomezkorta maisuaren ardurapean ikasi dutenaren erakustaldia egingo dute. Erakustaldia goizeko 12:00etan hasiko da eta sarrera dohainik izango da.



MAITZAK

Futbol 7

Palpadores 18 - Los Destornis 3
Gacique pal Pique 7 - Bar Margon 3
Bar Martin 9 - F.S.J. 2
Awyer 13 - Reanimator 3
Faustino VIII 0 - Gran Prepucio 7

Esku pilota

Lagunak Pilota Txapelketa

Final aurrekoak

I. Gabilondo 18 - I. Izeta 7 (Benj. B)
J. Conde 18 - M. Tadeo 8 (Benj. B)
P. Larrea 18 - E. Elxaniz 4 (Benj. A)
G. Unanunzaga 18 - J. Salazar 5 (Benj. A)
O. Txurruka 18 - A. Mendibil 8 (Aleb. nes.)
M. Arrizabalaga 18 - I. Alguacil 10 (Aleb. nes.)
M. Portu 18 - J. Muñoz 7 (Ateb. mut.)
I. Txurruka 18 - A. Guemez 11 (Aleb. mut.)
E. Loiola 18 - A. Agirrebeña 7 (Kad.)
E. Ulazia 18 - H. Iriondo 16 (Kad.)

Sigmako Pilota Txapelketa

Ubera/Katei 18 - Otaño/J. Loiola 22
Esnaola/Balola 10 - Urtubia/Lazarobaster 22

nmammilm

Futbol 7, Mintxetan

24, larunbata

10:00 Los Intocables - Astigarraga Kirolak
11:00 Mazantini Taberna - Pastong Pila
11:00 Vultur Gryphus - Ford Lerun

28, asleazkena

20:00 Harzubi - R. Oso Takata
20:00 Antzarrak - Litoplasma
21:00 Celta del Vino - Softlan
21:80 Artetxe - E 90

Esku pilota, Sigman

Astearlea, 27
19:00 Osoro/Rojo - KarraKander
19:30 Karmel/Egaña - Urtubia/Lazarobaster
Osteguna, 29
19:00 X. LoiolArrillaga - Ubera/Katet
19:30 Karral/Lander - Ulazia/Arizmendi

TO
LE
TXE

TA5ERNA

Pedro Muguruza 8, behea
Tel. 943 7419 48ekainak 23,
barixakuaSAN JUAN AFARIA
eta KAFE GIRO BEREZIAelunak 29,
egucna
21:30Iparraldeko
BORDAXURI taldea

KANTUA eta ANTZERKIA

bOkth + kaña
500 pta.

ELGOIBARKO IZARRA

Altzolako San Juanekin hasiko dira auzoetako jaiak

San Pedro bailarako jaiak ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitartean ospatuko dira

Sczn Juan bezpera suak piztu eta gainetik salto egiteko gaua izan olzi da. Altzolan urte asko dira sua Deba ibaian pizten dutela eta gaur gauean ere halaxe egingo dute. San Juanekin hasiko dira Elgoibar inguruko auzoetako jaiak, hurrengoan San Pedron txanda izango da.

Gaur hasiko dituzte Altzolako auzotarren San Juan jaiak. Iluntzean sua Deba ibaian nola erretzen den ikusteko parada izango da. Sua azkenetara heldu baino lehen Combi taldearen doinuekin ongi etorria egingo diote San Juan Egunari. Altzolan ezezik Elgoibarren eta inguruetan ere piztuko dira suak San Juan bezperan.

San Juan Egunean meza nagusia eta prozesioa izango dira protagonista. Aurten gainera, auzotarren eta Udalaren laguntzaz bertutako elizan entzungo dute meza. Garai batean Altzola sonatua izan zen bainuetxea zela eta, baina gainbehera izugarria izan du eta erakunde zein herritarren laguntza ezinbestekoa da.

San Juan Txiki Egunak egingo dio itzala urteko egunik luzeenari. Auzotarren bazkaria izango da lehenengo trikiti doinuz alaituta. Ondoren, haurrek parkean jolas egingo dute eta gaztetxoek, berriz, zezentxoak toreatzeko aukera pargabea izango dute.

San Pedroko jaiak

San Pedro bailarakoek hartuko diete erreleboa altzolatarreri. Ekainaren 28an hasiko dituzte jaiak. Ostegunean, San Pedro Egunean, prozesioa eta meza izango dituzte. San Pedron probatoki berria egin dute,

Altzolan ezezik Elgoibarren eta inguruetan ere piztuko dira suak San Juan bezperan.



eta auzotarrek egun aproposa aukeratu dute inauguraziorako. Jaietan idi-probak izango dira bertan, bata ostiralean

San Juan sua Deba ibaian nola erretzen den ikusteko aukera izango da Altzolan

bertan eta igandean bestea. Bigarren honetan Epiolak, Lopategik eta Uzkudunek hartuko dute parte. Bertsotzaileek ere izango dute ongi pasatzeko aukerarik San Pedron. Gauean afaria iragarrita baitago Mendiluze, Agirre, Gorrotxategi eta Legarretarekin. Gaijartzaile lanetan Fernando Loiola arituko da. Ondoren gaupasa izango da Ansorregi eta Larrafiaga trikitilariekin.

Probaleku berria inauguratuko dute San Pedro Egunean bi idi-probarekin

Eguna ongi amaitu eta hobeto hasteko goizaldean txokolate jana egingo da. Jaiak igandean amaituko dira. Auzoko jaien lasterketa hasi da udarekin batera, eta San Pedrokoen ostean San Lorentzok hartuko du erreleboa, bitartean bizkor segi jaietara.

Bero ikaragarria egin ostean, udan sartu gara aste honetan. Tenporen arabera abuztua eta iraila ere oso heroak izango omen dira.

Eguneroko bizimoduan eragiten al dizu eguraldiak?



MARIA LUISA ESTEVE
55 urte, dendaria

Bai, jende guztiari eragiten dio. Gorputzak eguraldi aldaketak asko igartzen ditu, buruko eta hezurretako mina izaten dut. Beroa nahiago dut, baina asko nekatzen nau.



JUAN LUIS GOIKOETXEA
45 urte, komertziala

Bai, eragiten dit. Bero handia egiten duen egunetan etxera buruko minez iristen naiz. Hego haizeak ere jendea haserre jartzen du, batzutan baita neu ere.



PEDRO LOPEZ
39 urte, kamareroa

Bai, asko. Neka-neka eginda egoten naiz beroarekin. Minik ez dut izaten, baina gauzak egiteko gogo kentzen dit. Nahiago nuke egunero eguraldi freskoa egingo balu.



GLORIA DIAZ
61 urte, etxekoandrea

Niri bai, bi aldiz operatu naute bihotzetik eta bero handia egiten duen egunetan itolarria sentitzen dut. Eguraldi aldaketak ez ditut batere gogoko.



ESTEBAN LOZANO
46 urte, administraria

Ez. Beroa nahiago dut eguraldi hotza baino, dena den eguraldiak ez dit fisikoki eta animikoki eragiten. Euria ari duenean ere berdin-berdin ateratzen naiz kalera.




CELIA BARANDELA
36 urte, farmazeutika

Ez. Beroak piska bat nekatzen nau, baina ez erabat geratu arte. Eguraldi hotza edo freskoa egitea nahiago dut, baina eguzkia ateratzen denean ere ez naiz kexatzen.



ESKERTZA

2000ko ekainaren 19an, 62 urte zituela hil zen **PAQUITA MURUA GABILONDO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

ikaid emy« utoaeo apleta kevu'ima **16 «leotelo. gasi**



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anhulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emaileak . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (Eibar) . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.. 943 744366
 Udal Kirol Patronatua, . 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) . 943 74 08 80
 Herri Eskola . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre . 943 74 80 19
 Ezenarro (Meka). 943 74 80 19
 I kastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia . . 943 74 34 74
 Egunkaria 943 30 02 28
 Gara..... 943 31 69 99

23 ostirala

18:30 ODOL-ATERALDIA
 Pedro Migel Urruzuno 8an

20:00 ALCCHOLICOS
 ANONIMOS
 ELKARTEAREN
 RITZALDI IREKIA
 Kultur Etxean

20:00 SAN JUAN JAIA
 Antolatzailea: Gaz-T taldea
 Madalako **parkean**

21:30 SAN JUAN
 AFARIA **eta**
 ERROMERIA
 Toletxe tabernan
 Prezioa: 2.500 pta.

22:15 ZINEA
 "Doble traici6n"

24 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
 "Doble traici6n"

19:45 "KANTA
 CANTEMUS"
 ABESBATZA
 San Bartolome parrokiari

25 igandea

19:30-22:15 ZINEA
 "Doble traici6n"

18:45 GELATXOREKIN
 DANTZALDIA
 Plaza Handian

2 asteleena

22:15 ZINEA
 "Doble traiciOn"

27 asteartea

19:00 EGUR ARTE
 TAILERRAREN
 ERAKUSKETA
 Uztailaren 9ra arte

29 osteguna

18:00 AURREJUBILATU
 eta PENTSIONISTEN
 EUSKAL
 FEDERAZIOAREN
 AURKEZPEN
 EKITALDIA
 Jubdatuen Biltokian

21:30 IPARRALDEKO
 4 BORDAXURP TALDEA
 Musika eta antzerkia
 Toletxe tabernan

30 ostirala

19:00 ARIGERA JAIXA
 Hasiera Toletxe tabernan

22:15 ZINEA
 "AI

ZINEA



Zuzendaria: Bruce Beresford.
 Antzezleak: Tommy Lee Jones,
 Ashley Judd, Bruce Greenwood.

"DobleTraicien"

Libby Parson bere bizitzako astebururik onenaren aurrean dago: senargaiak luxuzko barku batean asteburu zoragarri bat pasatzera gonbidatu du, Libbyren ametsa egia bihurtuz. Gauerdian senargai desagertzen denean, ametsa amezgaizto bilakatuko da, ordea, barku guztian dauden odol arrastoak izango baitira senargaiak lagako dituen aztarna bakarrak. Poliziak Libbyri leporatuko dio senargaiaren hilketa eta gartzelelan sartuko dute, bere semearengandik urrunduz.

• • 11 1111 El • 111 • • IE • III • • 111 ■ IIII • 111 1111 111 • IIII

SAN PEDROKO

jaiak

ASTEAZKENA, ekainak 28,

20:00 Jaien hasiera kanpai jotze eta txapligoekin

21:00 Auzotarren poteoa

OSTEGUNA, ekainak 29

11:00 Prozesioa eta meza nagusia. Ondoren, Saizar sagardotegiak eskainitako sagardo dastaketa.

12:30 Probatokiaren inaugurazioa eta Idi-proba erakustaldia

14:00 Auzotarren bazkaria Egun osoan zehar Iker Allur eta Unai Narbaiza trikitilariak.

LARUNBATA, uztailak 1

17:00 Umeentzako jolasak, Atxutxihamaika taldeak antolatuta

18:30 Poniak eta zezenak

21:00 Bertso afaria: Aitor Mendiluze, Jose Agirre, Jose Luis Gorrotxategi eta Xabier Legarreta. Gai jartzailea: Fernando Loiola. Ondoren, gaupasa Ansorregi eta Larrafiaga taldearekin. Goizaldean, Txokolatada

IGANDEA, uztailak 2

10:30 Meza

12:00 Zaldi lasterketa Sariak: 30.000 pta., 20.000 pta. eta 10.000 pta.

14:00 Auzoko Jubilatuentzako bazkaria

18:00 Idi-demak. Partehartzaileak: Oikiako Pako Epiola, Billelako Iñaki Lopategi eta Errezilgo Jose M. Uzkudun. Egun guztian zehar Felix Astorkia eta Adrian Larrañaga trikitilariak.

San Juanak

OSTIRALA, ekainak 23

14:30 Txafilguak eta kanpai hotsa jaiiei hasiera emateko

19:30 Salbea eta santuari jaietako zapia jartzea

20:00 San Juan Zuhaitza jarri.

22:30 San Juan zuhaitza piztuko da Deba ibaiaren erdian

23:00 Combi taldearekin dantzaldia

LARUNBATA, ekainak 24

11:00 Prozesioa eta meza nagusia

13:00 Trikitilarien kalejira

18:00 Haurrentzako johtsak, pailazoak eta kalejira

23:00 Combi taldearekin dantzaldia

IGANDEA, ekainak 25

15:00 Anaiarteko bazkaria trikitilarietako girota

16:00 Haurren parkea eta gaztelu erraldoiak

20:00 Zezentxo eta ponyak

22:00 Jaien bukaerako traka

• 'Kanta Cantemusw abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, larunhata, Parrokian

Emakumez osatutako Kanta Cantemusw abesbatzak kantaldia eskainiko du bihar, ekainak 24, anztsaldeko 7:45ean Parrokian. Javier Bustok zuzentzen du koroa eta hainbat ekitaldi eta ziklo koraletan hartu dute parte, Euskal Herrian naiz atzerrian. Tolosako abesbatzen lehiaketan ere sariak irabazitakoak dira. Elgoibarko emanaldian guztira 15 kanta abestuko dituzte, euskaraz zein beste hainbat hizkuntzatan. Doinu koralak gustuko dituztenek aukera paregabea izango dute 'Biar-Dana' Elkartearen urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatutako kontzertu honenkin.

• 'Arigerat jaixa ostiralean, hilaren 30ean izango da

'Arigera' helduen eus-kalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektuak demaseko jaia antolatu du. Ekainaren 30ean, barixakuan, izango da Arigeraren jaixa. Arratsaldeko 19:00etan hasiko dira ekintzak, Toletxen hasi eta herriko tabernetan txikiteoa egingo baitute Baltzola anaiak trikitilariert laguntzarekin. Ondoren, gaueko 21:00etan afaria izango da Madalako parkean (euria egingo balu, Plazako arkupeetan) era afalostean erromeria itzela. Afarirako txartelak 1.000 pta. balio ditu. Txartela erosteko honako telefono hauetara deitu: Udal Euskaltegia (943 74 27 31), AEK Euskaltegia (943 74 13 32) edo Elgoibarko Izarra (743 74 16 26). Izena emateko azken eguna ekainaren 28a izango da.

U' iD:11 71

FARMAZIAK

| | Egunez | Gauzez |
|----|------------------------------------------|-----------|
| 24 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 25 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 26 | Escala | Escala |
| 27 | Bidasolo | Bidasolo |
| 28 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 29 | Fernandez | Fernandez |
| 30 | Yudego | Yudego |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACID FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

25 igandea Fatero

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Lana

• ESKAINTZA •

- Pensonar arduratsua behar da urte osoan zehar ordu batzuetan bi ume zaintzeko. Euskaraz dakiena. 71 626 23 75 70.
- Neska euskalduna behar dut arratsaldez etxeko lanak egiteko. tr 943 74 39 98.
- Pertsona bat behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. tr 943 74 04 56. Maria.
- Sukaldaria behar da. 943 20 32 91.
- Mutita behar da tabernan lan egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. 943 74 28 97
- Neska behar da Jubilatuen Biltzikotako tabernan lan egiteko. Ekainaren 23tik uztailearen 23ra arte. tr 943 74 05 26
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. sts 943 74 42 43 (gauetz)
- Janari banatzailea behar da. Pertsona arduraduna eta 13-1 gidabaimena duena. a 943 74 18 67 (20:00tik 23:00ra).
- Informatikan lizentziatua behar dugu irakasle lanetarako. a 943 74 08 50
- Neska arduratsua behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. *a 943 70 15 86
- Neska euskalduna behar da Deban umeak zaintzeko. 72 943 19 15 81 (gauetz)
- Goiko Errota elkarteak garbitzeko pertsona bat behar da. e 943 74 01 72.
- Jostuna behar da arropa konpontzeko. Makinaz eta eskuz josten dakiena. er 943 19 28 51 (Kontxi 15:00-17:00)

• ESKAERA •

- Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. te 636 04 70 28.
- Euskarazko klaseak ematen dira arratsaldetan. w 667 99 16 37

Salerosketak

- Katu pertsua bat saltzen da. Ona da. tr 943 74 43 881607 47 74 05 (Kristina)
- Kanping denda saltzen dut. Bi logela, sarrera eta toltioa ditu. Bi edo lau pertsonentzat da eta muntaita errezekcm. Berri-berria da. 13. 943 74 05 37
- VHS Panasonie bideokamera salgai. Koloredun bisore-optikoa. SP/LP titulazioa. Bideoarekiko konexioa. 2 bateria eta CA egokitzaila. Oso egoera onean. er 943 74 43 74
- Ford Mondeo 1.8 TD salgai. ir 943 74 43 25 (gauetz).
- Opel Astra Van (2 eserleku), 1.7 TD salgai. Oso egoera onean. Lau urte eta erdi ditu. Beti garajejan egon izan da. tz 629 44 45 35
- Poleazko arku bat saltzen dut, osagarri eta guzti. 13 943 74 07 09 (Asier).
- Mountain bike bizikleta salgai. r 943 74 39 75 (Arrate. 20:00etik aturera).

Etxebizitzak

- Apartamentua dut alokatzeko Benidormen. Levante'ko hondartzara ematen du, pizsina eta parkina ditu. ia • 943 74 38 27/943 74 20 31.
- Gela bat daukat alokatzeko. ir 943 74 18 81
- Apartamentu bat alokatzen da Nojan, ekaina, uztailea eta irailean. Astebete edo hamabostaldietarako. tr 943 74 09 57.
- Uztaileko apartamentua alokatzen da Torreviejako "Playa del Cura"n. er 943 74 24 50
- Alokairuan dagoen pisu bat nahi nuke. Presa dut. mr 943 74 30 25-677 86 48 48
- Deban etxea salgai, Mogel kalean. Hiru logela (bat teilatuaren kontra), bi bainu-gela, sukalde txikia eta egongela. Bertatik itsasoa ikusten da. tr 943 19 21 98 Pepi
- Apartamentua alokagai Torreviejan. Hondartzatik gertu. Piszinarekin. •ar 943 74 23 63

Bestelakoak

- Ekainaren 3an gizonezkoen erlojua galdu nuen. Inork aurkitu badu, deitu -zr 943 74 14 52 telefonora.
- Ekainaren 9an. AX ilun bati eta Visa gorri bati kolpea jo zioten Santa Anako errotondan. Informazioa einan dezakenak 13. 943 74 01 17ra deitu.
- Gizonezkoentzako erlojua galdu nuen San Pedron hilaren 3an. TOpttu duenak. e 943 74 14 52 ra deitu,
- Graduatuak betaurrekoak galdu ditut, Santa Ana kaletik Olasora bitartean. IT 943 74 06 01
- Zaindu ezin dudala-eta, samolledo arrazako txakur bat oparitzen dut. Cristina a 943 74 28 69.
- Urrezko pulsera bat aurkitu dut. er 943 74 32 96
- Maiatzaren 5ean, norbaitek plaza-ko tutupetan, "game boy" bat aurkitu bazuen. mesedez entman dezlala Udaltzaingora. Eskerrik asko.

Agurrak

- Zorionak Yoana, joan den astean urteak bete zenituelako. Zumaiaiko Charliren partez.
- Zorionak Nahia Abadi, ekainaren 19an 9 urte bete zituelako. Ikastolako 6. mailako pariez.
- Zorionak Ikastolako 5. mailakoei. Arrasateko pilota txapelketan 3. egin zutelako, Aupa Elgoibar!
- Zorionak Adelfari zure utebetetzeari. Dakizun bihotzeari jarraitzen duzu. Aingeru goardakaaren partez.
- Zorionak Miren, igandean, hilak 25, zure bataioa izango delako. Familia guztia eta bereziki, Nerea, Maider, Leire eta Gorkaren ptuzet,



• Zorionak Sara, gaur, hilak 23, 2 urte bete dituzulako. Familiaren partez.

• Zorionak Eli-xabeti. M5s vale tarde que nunca! Familia osoaren partez.



• Zorionak Manuel Arandari, hilaren 26an urteak beteko dituelako. Guraso eta anai-arreben partez.

• Zorionak Jon zure 8. urtebetetzeari. Gurasoen eta anaia Asierrren partez.



• Zorionak Laurari bere 3. urtebetetzeari. Guraso eta ahizpa Joneren partez muxu handi bat.

• Zorionak Aitor zure urtebetetzeari. Muxu handi bat eta ondo pasa eguna. Zure familiaren partez.



• Zorionak Nerea eta muxu handi bat zure fatnilikoen partez.

♦ Zorionak Aitor. Zelako mutil eder!



+ Zorionak Josu Abadi, hilaren 29an 12 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.

• Zorionak Iker Esnaolari, 25ean 10 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta bereziki, julenen partez. Ondo pasa potxolo, merezi duzu-eta!



• Zorionak Nerea Asenjori, hilaren 26an 10 urte beteko dituelako. Gurasoen eta bereziki, anaia Aitorren partez.

DROGA

SEXUALITATEA

ZERGATIK STOP?

Hitze_in deza_un lotsarik •abe.



CA/T

sexualitatea eta drogak

TA1LERRAK

1.1.1

26-27 SE50 HEZIKETA
astelehena eta asteartea

DOAN

D9liko sazteei zuzendua

11 28-29 DROGAK
asteazkena eta osteguna

30 DEBATEA- SORPRESA- LUNTXA
ostirala

ordutegia 10,00 - 13,00

IZENA EMATEKO:

Epea: Ekainak 19-23
Lekua: Elgoibarko Izarra
Ubitarte 4, behea
Tel: 943 74 16 26



ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



7% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin



Uda honetan, *Hyundai* autoak fresko-freskoak aterako ditugu.



Hyundai-k **aire egokitua**
edo dagokion deskontua **erregalatzen dizu.**



| | | |
|--------|---------------------------|--------------------|
| ATOS | 1.020.000 pta.tik aurrera | (6.130,32 euro)* |
| ACCENT | 1.356.000 pta.tik aurrera | (8.149,72 euro)* |
| LANTRA | 1.809.000 pta.tik aurrera | (10.872,31 euro)* |
| COUPE | 2.156.000 pta.tik aurrera | (12.957,82 euro)* |
| SONATA | 2.885.000 pta.tik aurrera | (17.339,20 eu ro)* |



HYU113111
Gidatu marka ona bat
www.hyundai.es

*Pentasisga eta Balear irietan goinendatnalw prOna. hlab kulaua ludeaketa, Prizzazio inituranna e1a prever plaat laree, Hlaren hulacpararteto eskamta stock.eae eaudea hoaako lndoissetur, Alos, Accertt, Lootra, Ccoao ela Sonala, BoieroaNA arrols toloroon: 9B2 246 8111
NIENDARO AUTOAK: ELGOIBAR TEL. 943 74 32 00 • E1BAR TEL. 943 20 GO 00 •1RUN TEL. 943 61 20 00 • DONOST1 TEL. 943 31 22 00
BEASAIN Ta. 943 88 34 00 • AGENTEAK: TOLOSA TEL 943 67 40 29 • ARRASATE ra.. 943 71 20 02.